sanmarkos
Mankomunitatea

SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

AKTA ZK./*ACTA Nº*	**290/18**
LEKUA/ *LUGAR*	San Marko Mankomunitatea Bilera aretoa *Mancomunidad de San Marcos- Sala de Reuniones* Vitoria-Gasteiz 10; Donostia-San Sebastian

EGUNA/ *DÍA*	**ORDUA/ *HORA***	**DEIALDIA/ *CONVOCATORIA***	**Deialdi eguna/ *Fecha convocatoria***
2018/07/20 *20/07/2018*	Hasiera/inicio: 09:30 Amaiera/final: 10:30	Ohikoa *Ordinaria*	2018/07/16 *16/07/2018*

BERTARATUAK				
1. KIDEAK/*VOCALES*				
UDALA/ *AYTO.*	**KIDEA/ *VOCAL***	**BERTARATUA/ *HA ASISTIDO***		**BOZKAK *VOTOS***
		BAI/SI	**EZ/NO**	
DONOSTIA SAN SEBASTIAN	Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga (EAJ-PNV) *(Mankomunitateko Lehendakaria/ Presidente de la Mancomunidad)*	X		23,5
	Miguel Angel Diez Bustos (PSE)	X		23,5
LASARTE-ORIA	Jon Antxordoki Rekondo (*Suplente de* Estitxu Alkorta Barraganen ordezkoa). (EAJ-PNV)	X		6,5
	Agustin Valdivia Calvo (PSE)	X		6,5
PASAIA	Lore Suarez Linazasoro (PSE) (bilurako 3. Gaitik aurrera a partir del punto 3º del orden del día).	X		6,5
	Miriam Cano Puy (EAJ-PNV) (bilkurako 3. Gaitik aurrera, a partir del punto 3º del orden del día)	X		6,5
LEZO	Miguel Angel Sanchez Antunez (EAJ-PNV)	X		5,5
	Jose Angel Sanchez Gallardo (EAJ-PNV)		X	-
URNIETA	Mikel Pagola Tolosa (EAJ-PNV)	X		5,5
	Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV)	X		5,5
ASTIGARRAGA	Juan Martin Arregui Sagües (EAJ-PNV)	X		5,0
	Zorione Etxezarraga (EAJ-PNV) (*Suplente de* Mikel Duran Gonzaloren ordezkoa) (PSE)	X		5,0
ERRENTERIA	Jose Cruz Legorburu (*Suplente de* Miguel María Rodriguez Barberoren ordezkoa) (Irabaziz)	X		8,5
	Bernardo Lemos Taberna (BILDU)	X		8,5
OIARTZUN	Eneritz Arbelaiz Sarasti (BILDU)	X		5,5
	Iñaki Pikabea Lasa (BILDU)	X		5,5
HERNANI	Martin Aldaya Olasagasti (BILDU)	X		6,5
	Mª Coro Echeverria Tolosa (BILDU	X		6,5
USURBIL	Irene Gartzia Palacios (BILDU)	X		5,5
	Xabier Arregi Iparragirre (BILDU)	X		5,5
2. BESTEAK/*OTROS*		**GUZTIRA *TOTAL***		**151,5**

IDAZKARIA/ *SECRETARIO*	Xabier Loiola Aristi	KUDEATZAILEA/ *GERENTE*	Pedro Ugartemendia Garro
KONTU-HARTZAILEA/ *INTERVENTOR*	Julian Ortiz Arruabarrena	TEKNIKARI JURIDIKOA/ *TÉCNICA JURÍDICA*	Mirari Arriola Irizar

sanmarkos
Mankomunitatea

GAI ZERRENDA	ORDEN DEL DIA
1. Aurreko bilerako akta onartzea.	1. Aprobación del acta de la reunión anterior.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.	2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.
3. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan B sorta hutsik deklaratzea.	3. Declarar desierto el lote B de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".
4. San Marko zentroko biogasari energia balioa emateko planta kudeatzeko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez lizitatzeko espedientearekin hastea.	4. Iniciar el expediente por procedimiento negociado, sin publicidad, para la gestión de la planta Gestión de planta de valorización energética de biogás en el Centro de San Marcos.
5. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioaren espedientea hastea.	5. Iniciar el expediente de la licitación de la "gestión de servicios del Centro de San Marcos".
6. Industria-poligonoetako eta Teknologia-nahiz Enpresa-parkeetako erabiltzaileek sortutako udal-hondakina eta horiekiko asimilagarriak gaika biltzeko zerbitzua kudeatzeko lizitazioaren espedientea hastea eta hura esleitu bitarte azken kontratuaren luzapena.	6. Iniciar el expediente de licitación del servicio de Recogida selectiva de residuos municipales o asimilables generados por los usuarios de los Polígonos Industriales, Parques Tecnológicos y Empresariales de la Mancomunidad de San Marcos y prorrogar el último contrato actual hasta su adjudicación.
7. Mankomunitateko garbiguneak kudeatzeko kontratuaren luzapena onartzea eta baita haren prezioen berrikuspena ere.	7. Aprobación de la prórroga del contrato de gestión de garbigunes de la Mancomunidad y su actualización de precios.
8. 2016 ekitaldirako onartutako Mankomunitatearen behin betiko aurrekontuen aurka jarritako 242/2016 helegitearen epaia betetzea.	8. Ejecución de sentencia dictada en el recurso 242/2016, interpuesto contra la aprobación definitiva de los presupuestos de la Mancomunidad para el ejercicio 2016.
9. 2014ko aurrekontuaren ekarpenen kalkulu berrien akordio proposamena (1626/2017 sententziaren exekuzioa - otsailaren 23ko Batzar Orokorraren akordioa).	9. Propuesta de acuerdo de recálculo de aportaciones municipales presupuesto 2014 (ejecución de la sentencia 1626/2017- Acuerdo de la Junta Ordinaria del 23 de febrero).
10. Galde-eskeak.	10. Ruegos y preguntas.

1. Aurreko bilerako akta onartzea.

2018ko maiatzaren 18ko bileraren akta onartu da, aldeko 130 botorekin. Aurreko bileran egon ez izateagatik abstenitu egin da Miguel Maria Rodriguez (8,5).

1. Aprobación del acta de la reunión anterior.

Se aprueba el acta de la sesión del 18 de mayo de 2018 con 130 votos a favor. Se ha abstenido Miguel Maria Rodriguez, por no haber estado en la anterior Junta.

2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari.

Lehendakariak 17/2018 ebazpenaren inguruan azalpenak emateko eskatu dio Kudeatzaileari, izan ere, Aizmendiko zabortegian nahitaezko betearazpen espediente bat hasi baita.

Kudeatzaileak azaldu du, Aizmendiko zabortegian obrak egin direla aurreko urteetan eta lur batzuk daudela, erabilgarri ez direnak. Eskatu zaie bertatik ateratzeko FCC Medio Ambiente enpresakoei hainbat alditan eta, epeak amaituta atera ez dituztenez, Mankomunitatek nahitaezko betearazpen prozedura jarri dut martxan.

2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta.

El presidente invita al gerente a dar explicaciones sobre la resolución 17/2018 en relación a la incoación del expediente de ejecución forzosa en el vertedero de Aizmendi.

En palabras del gerente, en años anteriores se han realizado obras en el vertedero de Aizmendi y existen unas tierras a las que no se les puede dar uso alguno. En varias ocasiones se le ha solicitado a la empresa FCC Medio Ambiente que las retire y una vez cumplidos los plazos no ha cumplimentado el mandato, por lo cual la Mancomunidad ha iniciado un procedimiento de ejecución forzosa.

Ondoren, gai-zerrendako 3, 4 eta 5 puntuentzat Lehendakariak eta Kudeatzaileak azalpen orokorrak eman dituzte.

A continuación, tanto el presidente como el gerente proporcionan explicaciones generales en relación a los asuntos 3, 4 y 5 del orden del dia.

Azaldu dute, batetik, aurretik, San Markoko zentruan zerbitzuen lizitazioa martxan jarri zela eta aurreko Batzarrean, inor aurkeztu ez zelako, A, C eta D sortak hutsik utzi zirela.

Por un lado, se puso en marcha la licitación sobre los servicios en el centro de San Marcos y en la anterior Junta se declararon desiertos los lotes A, C y D por falta de ofertas.

Bestalde, azaldu da 3. puntua, proposamena aurkeztu zuen enpresak atzera egin duela baldintzak betetzen ez dituela ohartu delako, horregatik, hutsik uztea proposatzen da.

Por otro lado, se detalla el punto 3. La empresa que hizo la propuesta ha retirado la misma por incumplimiento de las condiciones exigidas. Ello lleva a proponer que también quede desierto.

Aurrekoaren ondorioz, berriz, lizitaziora ateratzea proposatzen da zerbitzua, 4. eta 5. puntuetan. Oraingoan, publizitaterik gabeko

Consecuencia de todo lo anterior, se propone realizar una nueva licitación del servicio en los puntos 4 y 5. En esta ocasión, la planta de

negoziatu bidez aterako da biogasaren planta, lehen C sorta zena, legeak aurreikusten duelak, hutsik geratzen diren kontratuen kasuan, eta zerbitzu teknikoek egoki deritzotelako. Lehengo A, B eta D sortak, ordea, modu irekian batera lizitatzea proposatzen da, banaturik joateak eskaintzak aurkezteko zailtasunak eragin ditzakeelakoan hemen ere.

biogás (anteriormente lote C) se va a licitar a través de un procedimiento negociado sin publicidad. En el caso de contratos que han quedado desiertos, la legislación lo prevé de esa manera. Además, los servicios técnicos estiman que la tramitación es adecuada. Sin embargo, en relación a los lotes A, B y D, se propone una licitación abierta conjunta, ya que separados pueden dificultar la presentación de ofertas.

Hori horrela, Biogasaren plantarako, Batzarreko gai zerrendako 4. puntuaren barne, 5. erabaki proposamen puntu bat gehitu behar da, arloan dabiltzan hiru enpresei gonbidapenak bidaltzeko.

Partiendo de esa base, para el 4º punto del orden den día, referido a la planta de biogás, se propone añadir el punto 5 en el acuerdo que permita enviar invitaciones a tres empresas del sector.

Puntuak bozkatzen hasi aurretik, Pasaiako bi ordezkariak sartu dira: Lore Suarez eta Miriam Cano.

Antes de proceder a la votación de los asuntos, han entrado a formar parte de la sesión las representantes del Ayuntamiento de Pasaia: Lore Suarez y Miriam Cano.

Xabier Arregik galdetu du ea ze aldaketa nabarmen egin diren eta ea bermatu daitekeen norbait aurkeztea.

Xabier Arregi pregunta sobre las modificaciones significativas. Además, desea conocer si con ellas se garantiza la presentación de ofertas.

Kudeatzaileak azaldu dizkio aldaketa nagusiak. Batetik, loteak ezabatu dira, ekonomia eskalak hausten zituelako, langileak banatzen zirelako eta sortetan banatzeak oztopoak eragin ditzakeelako. Bestalde, prezioa zerbait igo da, doikuntza batzuk egin dira, mantenu lanek eraginda makineria behar delako eta horrek suposatu dezakeen prezio igoeragatik. Azkenik, bolumen handiko kudeaketa kanpora atera behar zen lehendik eta horrek Eusko Jaurlaritzaren baimena eskatzen duenez, sei bederatzi hilabeteko epe bat ematen da baimena eskuratzeko.

El gerente subraya los principales cambios. Por un lado, se han eliminado los lotes, porque rompían la economía de escalas, porque se repartían trabajadores y porque distribuirlo en lotes puede traer dificultades. Por otro lado, se ha incrementado algo el precio, tras ciertos ajustes. Los trabajos de mantenimiento exigen maquinaria y ello puede suponer un coste más elevado. Por último, era necesario en primera instancia externalizar la gestión de los voluminosos, lo que exige una autorización del Gobierno Vasco. Así, se da una prógorra de seis-nueve meses para obtener la citada autorización.

Transferentzia gunea amaituko denez, eta hamaika langile daudenez, horrek atzera eragin diezaieke enpresa batzuei baina aldaketa hauekin norbait aurkeztea espero dela azaldu du.

Ya que el centro de transferencia deberá cesar su actividad y existen once trabajadores asociados a él, ciertas empresas se pueden retraer, pero con las citadas modificaciones se espera que exista alguna oferta.

Gaineratu du, gestio batzuk egin direla langileen egoera bideratzeko, egun San Markon burutzen diren lanak Zubietan egitera pasatzean, langile horiek bideratzeko, lan eskarmentua badutelako.

Añade que se han realizado gestiones para encaminar la situación de los trabajadores cuando los trabajos a ejecutar pasen de San Marcos a Zubieta. Se pretente colocar a esos trabajadores ya que disponen de experiencia.

Azalpenen ostean, banan bana bozkatu dira puntuak.

Tras dar las explicaciones, se han votado los asuntos de una manera individualizada.

3. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan B sorta hutsik deklaratzea.

3. Declarar desierto el lote B de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"2018ko otsailaren 23ko ohiko Batzar Orokorrean, araudi harmonizatuan, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidez, San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko kontratazio espedientea, baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartu ziren.

"En la Junta General ordinaria del 23 de febrero de 2018 se aprobaron el expediente y los pliegos técnicos y administrativos para la adjudicación del contrato de servicio del Centro de San Marcos por regulación armonizada, procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

Lizitazioaren iragarkia 2018ko otsailaren 27an bidali zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera (iragarkia martxoaren 1ean argitaratua) eta data berean argitaratu zen kontratugilearen profilean, eskaintzak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a zela adierazi zen. Era berean, martxoaren 8an argitaratu zen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Con fecha 27 de febrero de 2018 se envió el anuncio de licitación al Diario Oficial de la Unión de Europea (anuncio publicado el 1 de marzo de 2018) y se publicó el anuncio el mismo día en el perfil del contratante; se señaló que el plazo para la presentación de proposiciones finalizaba el 30 de abril. Del mismo modo, el 8 de marzo de 2018 se publicó el anuncio de licitación en el Boletín Oficial del Estado.

B lotearentzat, eskaintza bat erregistratu zen, eta eskaintza horren 1 eta 2 gutun-azalen irekiera 2018ko maiatzaren 18an burutu zuen Kontratazio Mahaiak. Horren ondoren, Mankomunitateko zerbitzu teknikoei bidali zitzaien eskaintza hori aztertzeko lana.

Para el lote B se registró una oferta, a cuya apertura procedió la Mesa de Contratación el día 18 de mayo de 2018, apertura de los sobres 1 y 2. Tras lo cual encargó a los servicios técnicos de la Mancomunidad el estudio de oferta técnica presentada.

Dena den, B sortara aurkezturiko lizitatzaile bakarrak, Fomento de Construcciones y Contratas, S.A. (FCC)-k, 2018ko ekainaren 6an, proposamenari uko egiten zion idatzia erregistratu zuen, Bandintza Teknikoen Pleguek eskatutakoarekin bat ez zetozelako.

No obstante, el único licitante al lote B, Fomento de Construcciones y Contratas, S.A. (FCC), registró el 6 de junio de 2018 su renuncia la propuesta, basándose en que, no cumplen lo exigido en los Pliegos de Condiciones Técnicas.

Ikusirik kontratazio mahaiaren proposamena, ekainaren 12koa, ondorengo **AKORDIOA** hartzea proposatzen da:

Visto la propuesta de la mesa de contratación del 12 de junio se propone adoptar el siguiente **ACUERDO:**

LEHENA. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan B sorta hutsik deklaratzea.

PRIMERO: Declarar desierto el lote B de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos"

BIGARRENA. Ebazpen hau, EBAOn, Estatuko

SEGUNDO. Publicar esta resolución en el

Aldizkari ofizialean eta kontratugilearen profilean argitaratzea."

DOUE, en el Boletín Oficial del Estado, así como en el perfil del contratante."

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko 99,5 botorekin eta 52 abstentzioekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la ratificación propuesta por 99,5 votos a favor y 52 abstenciones.

Aldeko 99,5 botoak Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; abstenitutako 52 bozkak Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

Los 99,5 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta y las 52 abstenciones corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Errenteria, Oiartzun, Hernani y Usurbil.

4. San Marko zentroko biogasari energia balioa emateko planta kudeatzeko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez lizitatzeko espedientearekin hastea.

4. Iniciar el expediente por procedimiento negociado, sin publicidad, para la gestión de la planta Gestión de planta de valorización energética de biogás en el Centro de San Marcos.

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"2018ko otsailaren 23ko ohiko Batzar Orokorrean, araudi harmonizatuan, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidez, San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko kontratazio espedientea, baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartu ziren.

"En la Junta General ordinaria del 23 de febrero de 2018 se aprobaron el expediente y los pliegos técnicos y administrativos para la adjudicación del contrato de servicio del Centro de San Marcos por regulación armonizada, procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

Epea hori igarota, ez zen eskaintzarik aurkeztu A, C eta D loteetarako, eta, ondorioz, 2018ko maiatzaren 18ko saioan, Batzar honek, hiru loteak hutsik uztea erabaki zuen.

Finalizado el plazo, no se presentó oferta alguna para los lotes A, C y D, por lo que en la sesión del 18 de mayo de 2018 celebrada por esta Junta, se acordó, dejar los tres lotes desiertos.

Aurrekarien txostenean, eta beharrezkotasun eta egokitasun txostenean ageri den moduan, beharrezkoa da prozedura berriz hastea eta Sektore Publikoko Kontratu Legeak 9/2017, 168.1.a) artikuluan, aurreikusten du, lizitazio bat hutsik geratu den kasuetan, publizitaterik gabeko prozedura erabiltzea.

Tal y como consta en el informe de antecedentes como en el informe de necesidad e idoneidad del contrato, es necesario iniciar de nuevo la licitación, y la ley 9/2017 de Contratos del Sector Público prevé en su artículo 168.1.a) utilizar el procedimiento negociado sin publicidad para las licitaciones que hubieran quedado desiertas.

Kasu honetan, biogasaren plantako mantenu zerbitzuek konplexutasun berezirik ez dutela eta zerbitzua oso konkretua dela ikusita, egoki jotzen da lizitazio hau, aipaturiko publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez ateratzea.

En este caso, visto que el mantenimiento de la planta de biogás no supone especial complejidad y que el servicio es muy concreto, se ve conveniente llevar el a cabo esta licitación por el mencionado procedimiento

negociado sin publicidad.

Aurreko guztiaren ondorioz, ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

Por todo ello, se propone el siguiente **ACUERDO:**

LEHENENGOA: Prozedura negoziatuz eta publizitaterik gabe San Marko zentroko biogas plantaren kontratazio espedientea onartzea.

PRIMERO: Aprobar el expediente de contratación de la gestión de la planta de biogás del Centro de San Marcos por procedimiento negociado y sin publicidad.

BIGARRENA: Kontratuaren beharrezkotasun eta egokitasuna onartzea, baita kontratazioa arautzeko Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria ere.

SEGUNDO: Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones Técnicas así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato

HIRUGARRENA: Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

TERCERO: Disponer del inicio del procedimiento de adjudicación.

LAUGARRENA: 2018ko aurrekontuaren partiden kargura gastua onartzea."

CUARTO: Aprobar el gasto con cargo a las partidas del presupuesto de 2018."

Proposamen honi, Lehendakariak ondorengoa gehitu behar zaiola adierazi du:

El presidente, ha explicado que hay que añadir el siguiente punto:

BOSGARRENA: Ezarritako baldintzen arabera, ondorengo hiru enpresak gonbidatzea aipatutako zerbitzuaren kontratazioan parte hartzera, gonbidapena jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 30 egunetan aurkeztu ahalko dute:

QUINTO: De acuerdo con las condiciones establecidas, invitar a las siguientes tres empresas a tomar parte en la contratación de dicho servicio, pudiendo presentar oferta dentro del plazo de 30 días a partir del siguiente a la recepción de la invitación.

- *ELKOR ELECTRICIDAD S.A.*
- *KEMEN ELECTRICIDAD ELECTROMECÁNICA S. L.*
- *GIROA S.A.*

- *ELKOR ELECTRICIDAD S.A.*
- *KEMEN ELECTRICIDAD ELECTROMECÁNICA S. L.*
- *GIROA S.A.*

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko 99,5 botorekin eta 52 abstentzioekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la ratificación propuesta por 99,5 votos a favor y 52 abstenciones.

Aldeko 99,5 botoak Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; abstenitutako 52 bozkak Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

Los 99,5 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta y las 52 abstenciones corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Errenteria, Oiartzun, Hernani y Usurbil.

5. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioaren espedientea hastea.

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

"2018ko otsailaren 23ko ohiko Batzar Orokorrean, araudi harmonizatuan, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidez, San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko kontratazio espedientea, baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartu ziren.

Epea hori igarota, ez zen eskaintzarik aurkeztu A, C eta D sortetarako, eta, ondorioz, 2018ko maiatzaren 18ko saioan, Batzar honek, hiru loteak hutsik uztea erabaki zuen.

Kontuan hartuz B sortarako lizitatzaile bakarrak uko egin diola eskaintzari (deialdi honetako 3. puntuan ikusita), beharrezkoa da lizitazio berri bat hastea, aurreko A, B, eta D sortetarako, kasu honetan ere, prozedura ireki bidez egitea proposatzen da. Gainera, beharrezkotasun eta egokitasun txostenean azaltzen den moduan, sortetan ez banatzea proposatzen da lizitazio berri honetan.

Aurreko guztiaren ondorioz, ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

LEHENENGOA: Prozedura ireki bidez, San Marko zentroa kudeatzeko kontratazio espedientea onartzea, kasu honetan sortetan banatu gabe.

BIGARRENA: Kontratuaren beharrezkotasun eta egokitasuna onartzea, baita kontratazioa arautzeko Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria ere.

HIRUGARRENA: Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

LAUGARRENA: 2018ko aurrekontuaren partiden kargura gastua onartzea.

BOSGARRENA: Lizitazioa Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari

5. Iniciar el expediente de la licitación de la "gestión de servicios del Centro de San Marcos".

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"En la Junta General ordinaria del 23 de febrero de 2018 se aprobaron el expediente y los pliegos técnicos y administrativos para la adjudicación del contrato de servicio del Centro de San Marcos por regulación armonizada, procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

Finalizado el plazo, no se presentó oferta alguna para los lotes A, C y D, por lo que en la sesión del 18 de mayo de 2018 celebrada por esta Junta, se acordó, dejar los tres lotes desiertos.

Teniendo en cuenta que el único licitador del lote B también ha renunciado a su propuesta, (visto en el del punto 3 de esta convocatoria), es necesario iniciar una nueva licitación para los anteriores lotes A, B, y D, en este caso, ser propone que se lleve a cabo por procedimiento abierto. No obstante lo anterior, según consta en el informe de necesidad e idoneidad, se propone no dividir en lotes en esta nueva licitación.

Por todo ello, se propone el siguiente **ACUERDO:**

PRIMERO: Aprobar el expediente para la contratación de la gestión de la del Centro de San Marcos por procedimiento abierto y en un único lote.

SEGUNDO: Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones Técnicas así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

TERCERO: Disponer del inicio del procedimiento de adjudicación.

CUARTO: Aprobar el gasto con cargo a las partidas del presupuesto de 2018.

QUINTO: Publicar la licitación en el Boletin Oficial del Estado y el Diario Oficial de la Unión

Ofizialean eta kontratugilearen profilean argitaratzea."

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko 99,5 botorekin eta 52 abstentzioekin.

Aldeko 99,5 botoak Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; abstenitutako 52 bozkak Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

6. Industria-poligonoetako eta Teknologia-nahiz Enpresa-parkeetako erabiltzaileek sortutako udal-hondakina eta horiekiko asimilagarriak gaika biltzeko zerbitzua kudeatzeko lizitazioaren espedientea hastea eta hura esleitu bitarte azken kontratuaren luzapena.

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

"2013ko ekainaren 06an, Mankomunitateko Lehendakariak Formento de Construcciones y Contratas, S.A-rekin kontratua sinatu zuen, Industria-poligonoetako eta Teknologia- nahiz Enpresa-parkeetako erabiltzaileek sortutako udal-hondakina eta horiekiko asimilagarriak gaika biltzeko zerbitzua kudeatzeko, lizitazioaren prozedura burutu ostean.

Kontratu hau, 2018ko ekainaren 05ean amaitu zen, ondorioz, beharrezkoa da lizitazio prozedura berriz hastea.

Aurrekoaren ondorioz, ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

LEHENENGOA: Industria-poligonoetako eta Teknologia- nahiz Enpresa-parkeetako erabiltzaileek sortutako udal-hondakina eta horiekiko asimilagarriak gaika biltzeko zerbitzua kudeatzeko kontratazio espedientea onartzea.

BIGARRENA: Kontratuaren beharrezkotasun eta egokitasuna onartzea, baita kontratazioa

Europea oficiales que corresponda y asimismo, en el perfil del contratante."

Realizada la votación, se ha aprobado la ratificación propuesta por 99,5 votos a favor y 52 abstenciones.

Los 99,5 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta y las 52 abstenciones corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Errenteria, Oiartzun, Hernani y Usurbil.

6. Iniciar el expediente de licitación del servicio de Recogida selectiva de residuos municipales o asimilables generados por los usuarios de los Polígonos Industriales, Parques Tecnológicos y Empresariales de la Mancomunidad de San Marcos y prorrogar el último contrato actual hasta su adjudicación.

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"El 06 de junio de 2013 el Presidente de la Mancomunidad firmó con Fomento de Construcciones y Contratas S.A. el contrato para la gestión del servicio de Recogida selectiva de residuos municipales o asimilables generados por los usuarios de los Polígonos Industriales, Parques Tecnológicos y Empresariales de la Mancomunidad de San Marcos, tras el correspondiente procedimiento de licitación.

Este contrato, finalizó, el 05 de junio del 2018 por lo que es necesario iniciar un nuevo procedimiento de licitación.

Por ello, se propone el siguiente **ACUERDO:**

PRIMERO: Aprobar el expediente para la contratación del servicio de Recogida selectiva de residuos municipales o asimilables generados por los usuarios de los Polígonos Industriales, Parques Tecnológicos y Empresariales de la Mancomunidad de San Marcos.

SEGUNDO: Aprobar la necesidad e idoneidad del contrato, los Pliegos de Prescripciones

arautzeko Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio Baldintza Berezien Agiria ere.

Técnicas así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

HIRUGARRENA: Esleipen prozedura hasi dadin xedatzea.

TERCERO: Disponer del inicio del procedimiento de adjudicación.

LAUGARRENA: 2018ko aurrekontuaren partiden kargura gastua onartzea.

CUARTO: Aprobar el gasto con cargo a las partidas del presupuesto de 2018.

BOSGARRENA: Lizitazioa Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

QUINTO: Publicar la licitación en el Boletin Oficial del Estado y el Diario Oficial de la Unión Europea oficiales que corresponda y asimismo, en el perfil del contratante.

SEIGARRENA: FCCrekin Industria-poligonoetako eta Teknologia- nahiz Enpresa-parkeetako erabiltzaileek sortutako udal-hondakina eta horiekiko asimilagarriak gaika biltzeko zerbitzua kudeatzeko, egun, San Marko Mankomunitateak duen kontratuaren luzapena onartzea, kontratu berria esleitu bitarte.

SEXTO: Aprobar la prórroga del contrato que la mancomunidad tiene firmado con FCC SA, para la gestión de servicios de Recogida selectiva de residuos municipales o asimilables generados por los usuarios de los Polígonos Industriales, Parques Tecnológicos y Empresariales de la Mancomunidad de San Marcos, mientras se adjudíque el nuevo contrato.

ZAZPIGARRENA: Zehaztutako baldintzetan kontratua sinatzeko lehendakariari ahalmena ematea."

SEPTIMO: Facultar al Presidente de la Mancomunidad para la firma de la prórroga en las condiciones que se establecen."

Lehendariak azaldu du Plegu hauek egungo lurralde esparruaren arabera burutu direla, kontuan hartu gabe Udal eskumenekin egon daitezkeen aldaketak. Ondorioz, azaldu du, kontratuaren zati nagusian, hots, lehen bi urteetan (luzagarria hiru aldiz urte bateko luzapenekin), udalen batek kontratuan sartzeko intentzioa badu edo uztekoa, berehala jakinaraztea, bi eguneko epean, asteartera arte, aurreko kontratuan egon diren aldaketak ez gertatzeko. Aldaketa handiak eragin ditzakeelako kontratuan.

Según manifiesta el presidente, los pliegos se han elaborado teniendo en cuenta el ámbito territorial actual, sin considerar las modificaciones relacionadas con las competencias municipales. Por tanto, en la parte principal del contrato, es decir, en los dos primeros años (prorrogables en tres ocasiones por periodos anuales) si algún ayuntamiento tuviera ya intención de formar parte del contrato o renunciar a él, se pide que sea comunicado inmediatamente, en un plazo de dos días (hasta el martes), para que no se de la situación del contrato anterior. Ello puede ocasionar cambios sustanciales en el contrato.

Horregatik, Lehendakariak akordioan puntu bat gehitzea proposatu du, bera ahaltzeko, aldaketaren bat jakinarazten bada pleguak aldatu eta argitaratzeko.

Por ello, el presidente propone incluir un nuevo punto en el acuerdo que le faculte a modificar y publicar los pliegos en caso de existir alguna comunicación de cambio.

Mankomunitateko kudeatzaileak kontratuaren ezaugarri nagusiak azaldu ditu. Egungo kontratutik ez dago aldaketa handirik, plastiko nahasketa bat eta ontzi arinen jasoketa sartu

El gerente de la Mancomunidad expone las características más significativas del contrato. No existen grandes cambios respecto al contrato actual. Se han incluido recogidas para

dira. Bestalde, azaldu du, lizitazioa elektronikoa izango da, lehen aldiz. Aurrez azaldu ez bada ere, San Markoko kontratu lizitazioa ere hala izango da.

la mezcla de plásticos y los envases ligeros. Añade que la licitación será electrónica por primera vez. Aunque anteriormente no lo ha mencionado, la licitación referente al contrato de San Marcos tendrá el mismo procedimiento.

Mankomunitateko idazkariak, zortzigarren puntua honela izatea proposatu du:

El secretario de la Mancomunidad propone que el punto octavo tenga la siguiente redacción:

ZORTZIGARRENA: Udal batek kontratuan parte hartzea uzteko erabakia jakinarazten badu, Mankomunitateko Lehendakaria ahaltzea pleguak egokitu eta argitaratzeko.

OCTAVO: Facultar al presidente de la Mancomunidad a adaptar y publicar los pliegos, si algún ayuntamiento notifica su decisión de no tomar parte en este contrato.

